

Pedro Aranburu

Pedro Aranburu 1965ean heldu zen Madrilera, banketxeko lanera. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan jaiotakoak biltzen zituen kongregazioa baino ez zuen izan aterpe Espainiako hiriburuan. Euskal etxe baten antzekorik ez. Bera bezala banketxeetan ari ziren euskaldunekin bildu eta euskal etxearen asmoa gauzatzea hartu zuen gogoan, seme-alaben euskaltasuna segurtatu nahirik. Hamaika ahalegin eta endredo eta gero, Madrilgo euskal etxea errealitate erakargarria da aspaldi diputatuen kongresutik bertara. Pedro Aranburu izan du *alma mater*.

Miel A. Elustondo

Argazkiak: Dani Blanco



«Ez gara politika euskaldunak g

Zuen euskal etxearen web gunean irakurri duzanez, XVIII. mendean gero eragin handiko euskal kolonia izan da Madril. Joan den mendean, are eta indar handiago izan dute euskaldunak hemen. Ez da gezurra. Goi mailako jendearen ondoan ageri dira euskaldunen izenak Madril; aristokraziaren ondoan, esan nahi dut. Bertako jauregi izenak ikusi besterik ez dago. Garai hartako euskaldunetako batzuek ez zuten gaztelan ondo jakingo, baina tira!

XX. mendean, berriz, euskaldunak arlo guztietan nabarmendu ziren: bankan, finantzan,

komertzioan, eraikuntzan, arkitekturan, industrian, garraioan, politika eta administrazioan, kirolean, antzerkia eta zineman, pintura eta musikan, literatur sorkuntzan, unibertsitatean... Baita Madrilgo metroan ere!...

Otamenditarrak! Donostiarrak oker ez banago... Begira, hartu telefono aurkibidea. Horixe aztertu besterik ez duzu. Hogeita hamabi Aranburu ginen bertan, garai batean. Euskaldunak asko gara Madril, asko! Batzuk, hona etorri eta gauzak ondo atera zaizkielako. “Ni orain atzera baserrira? Ez horixe”, esan eta bertan geratu dira.

Nortasun agiria

Pedro Aranburu (Donostia, 1929) Gros auzoan jaio zen, Bermingham kalean, baina lau urte zituenetarako Okendo ondoko Etxaide kalera joan ziren. Komertzio Eskolan ikasi eta Banco Bilbaon lan egin zuen, Donostian lehenengo eta, 1965az gero, Madril. “Gure ama karlista zen, eta esaten zuen: ‘Madrildik sekula ez da gauza onik etorri!’”. Bertan egin du bizimodua Pedro Aranburuk. Bertan lan, bertan hazi bost seme-alaba emazte Bitori Mujika donostiarrarekin. Haurrak euskal kutsuan erakutsi nahi eta euskal etxea izango zenaren hazia erein zuen: San Migel Anaidia. Euskarazko mezak egiten hasi ziren, euskal etxea deneko eraikina erosi zuten, eta era guztietako ekin-tzaz hornitu dute euskaldunon etxea Madril. Bertako presidente izan zen 1994tik 1996ra, bertako *alma mater* izana dela diote, baina bestela erantzuten du berak: “Ez da pertsona baten lana izan, talde oso batena baizik”.



n sartzen, baina ara Madrilen»

Beste batzuk, beste erremediorik eduki ez dutelako.

Zein da zure kasua?

Ni burtsara etorri nintzen, lanera. Orain dela hogeita hamar urte baino gehiago, 1965ean. Garai onean, industria gora ari zen, eta mugimendua! Horrela egin dut bizimodua hemen, eta horrela hasi nintzen euskal etxea sortzeko beharraz jabetzen. Izan ere, etorri eta ezer ez zegoen. “Euskal etxerik ez dagoela? Zer edo zer egin behar diagu bada!”. Eta horrela hasi ginen, batzuk eta besteak, kolore bateko eta besteko euskaldunak. Gero, Txoko Zar elkar-tea ere sortu genuen.

Lege zaharreko elkarte, Txoko Zar hori.

Gizonezkoentzat da bakarrik. Urtean bi edo hiru aldiz bai, sartzen dira gure andreak. Orduan, txantxa egiten dugu oraindik: “Datorren igandean ez da etorri behar. Andreen eguna da eta”. Txantxa artean, betiere.

Zu Madrila zinen garaian euskal etxerik ez, baina bazen nola-halako elkarte bat: Real Congregación de Naturales y Originarios de las tres Provincias Vascongadas (Hiru Euskal Probintzietan Jaiotakoen eta Jatorriz bertakoak direnen Erret Kongregazioa). Etxegarai kalean zuen egoitza, eta San Inazio elizaren jabe zen. Aberatsak ziren kongregazioko gehienak. Bere burua goratzea zuten helburu, batez ere. Kongregazioa hirukoiztarren esku zegoen, hiru bat fraide besterik ez ziren han euskaldunak. Gerra ondoko kontuak dira, gerra ondoa aspaldi pasatua, baina fraide haiek beldurrez bizi ziren, ez zuten elkarte zabaltzeko asmorik. Guk aurrera egin nahi genuen gure euskal asmoarekin. “Kartzelara sartzen bagaituzte, sar gaitzabela, baina gure seme-alabak euskaldun hazteko lan egingo dugu!”. Igandeko meza euskaraz izan zedin ahalegindu ginen lehenengo. Kongregazioan, berriz, fraide euskaldunak handik beste nora edo nora bidali zituzten ordurako eta madrildar aristokraziako izen “handikoak” zeuden agintean... Bateko markesa eta besteko kondea...

Madril I

“Ni banketxe batera etorri nintzen lanera, Alcalá kalera. Banco Bilbao. Banco Vizcaya, Banco Guipuzcoano... han ziren. Haietan lagunak ere banituen. Bizi, berriz, Ayala kalean bizi nintzen, eta fenomeno! Madrilik onenean! Autorik ez neukan, baina gainerakoan? Lana bai, goizeko zortzietan hasi, airean bazkaldu, eta iluntze arte lanean jarduten genuen, hamarrak arte igual. Baina gazte ginen eta egiten genuen. Koadrilan ez ginen asko lehenbizi, Batzuek politikatik jo nahi zuten. Beste batzuek, ‘hortik ez dator ezer!’, dena itxiko digute!’, esaten genuen. Gainera, guk umeak genituen atzetik. Elizako bidea, gure ohiturak erakutsi nahi genizkien... Erakutsi, behintzat!”

Euskal jatorriko jauntxoak.

Euskal jatorria bost inporta zitzairen! Paretan paper batean erakusteko, horretarakoxe! Eta Euskal Herrira joaten zirenean, markes titulua erakutsi! Gu etorri ginenean San Inazio egunean haren martxa kantatu besterik ez zen euskaraz egiten. Urtean behin! 1965ean! Etorri ginenean, galdetu egin behar izan genuen: “Hau zeinen eliza da? Euskaldunena? Gurea da, orduan!”. Elkartu ginen bi-hiru, bilerak egin eta lanean hasi ginen. Ordurako, ikastolak irekitzen hasita zeuden Euskal Herrian. Hemen, euskaldun puruenak ere gaztelaniaz ikastera behartuta zeuden, bestela galduta zeuden eta. Izan zen bat, Dionisio zuen izena, txofer ona zelako zeukana lana. Baina ez zen udaltzainekin hitz egiteko gauza! Nola-hala komunikatzen zen baina “¿Por qué no habla usted cristiano?” (Zertan ez duk kristau eran hitz egiten?), eta horrelakoak aditu beharra izan zuen. Ez zioten maiz esango, baina gutxitan esanda ere nahikoa zen.

Bi-hiru lagun bildu eta lanean hasi zinetela diozu. Zertan, ordea?

Fraide haiek 50 urte baino gehiago zeramaten San Inazio elizan, euskaldunon jabegoa zen hartan, eta, badakizu, lurralde konkistatua zelakoan zeuden! Eliza beraientzat balitz bezala ari ziren. Ez zuten esaten beraiena zenik, baina hantxe sartuta fraideak! Eta nola aterarazi? Giltzarik izan ez genuen bitartean, beste elkarte bat sortu genuen, Hermandad de San Miguel (San Migelen Anaidia) izenekoa, eta gure euskal meza, berriz, unibertsitate hirian egiten genituen.

Unibertsitate hirian?

Bai. Hogeita hamar bat ikasle eta hiru-lau bat familia elkartzen ginen han, igandero, euskarazko mezaren inguruan... Gu geure umeen geroaren alde ari ginen. Egun batean, kongregazioko batzar batean estatu kolpea jo genuen. Fraideei egindako lana estimatu, “eskerrak zuen lanarengatik, baina guk beste asmo bat daukagu” esan, eta San Inazio elizaren geroaz jabetu ginen. Zalaparta pixka bat izan zen, bateko agiri eta besteko erregistro... baina eliza euskaldunona izatea lortu genuen, gure euskal asmoen arabera.

Ordura arte ez bezala. Horixe! Fraideek beldurra zuten eta ez zuten egiten. Besteek, honako markesak eta harako kondeak, interesik ez zuten ezer egiteko. Gu, berriz, Erromaraino jotzeko ere prest geunden! Behar zen lekura joango ginen! Prozesu luzea izan zen, baina lortu genuen behintzat. Orain ondo konpon-tzen gara denok. San Inazio eliza gurea da, euskaldunona. Fraideek, berriz, beste etxe bat egin zuten, aldamenean. Orduan ekarri genuen euskarazko meza unibertsitate hiritik San Inaziora. Hor gaituzu harrezkero.

Kapilau euskaldunak ere bazenituzten. Canónigos Regulares Agustinos de Letran (Letrango Kanoniko Erregular Agustindarrak). Oñatikoak. Parrokia dute hemen. Andres Aranburu, Benantxio Aranguren... Horiek egiten zuten euskarazko meza, San Inazio elizan, euskaldunon elizan. Jabegoa ere erret kongregazio harena izan zen 1715etik hona.

75ean sortu zenuten anaidia, eta horixe izango zen gaur egungo euskal etxearen hazia. Anaidiko lagun denak euskal etxean eman zenuten izena... Nahi zuenak nahi zuena egin zuen orduan. Batzuk elizan geratu ziren, beste batzuk euskal etxera etorri ginen. Libertate osoz hartu genuen erabakia. Hemen inor ez zen ibili Fraga Iribarne bezala aginduak ematen, “zuk hau egin behar duzu, eta zuk bestelako hau”. Ez zen horrelakorik izan...

Zuen umeen alde jardun zenutela esan diguzu: meza euskaraz lehenengo, euskal etxea gero, ekintza mordoa egiteko aukera ematen duen azpiegitura daukazue.

Askok egiten dugu, eta gehiago egin beharko genuke. Hainbeste euskaldun dago Madrilen, eta gehiago izango dira! Ingelesak bezala gara hemen, gera ezinak! Gainera, euskara modan jarri da. Alemanak ere euskara ikastera etortzen dira hona, euskal etxera; edo unibertsitatara joaten dira ikastera. Euskara, katekonbetatik zeruraino igo da. Horrelakorik ez da inoiz ezagutu.

3.000 bazkide baino gehiago ere izan zineten... Euskaldunak asko ginen eta Madrilen! Eta, gainera, bilduta geunden! Madril txikia zen orduan. Gaur egun, hainbeste auzo eta hainbeste jende, zailago da biltzea, baina 65ean, etorri ginenean, erraza zen. Euskaldun asko hemen bertan

AZKEN HITZA

Talentuen parabola

“Madrilgo euskal etxeko *alma mater* naizela esan dizute baina gauza bat esan behar dizut, serio: euskal etxea ez da pertsona baten lana izan, ekipo batena baizik. Hasieran neu ibili nintzen zirika, gero bestea, eta beste bat ondoren. Jende askok egin dugu euskal etxea. Batzuek lan egin dute eta beste batzuek lagundu. Gurasoak seme-alaben ardurara du, enpresaburuak langileena, denok ditugu geure ardurak, eta haien arabera jardun behar dugu. Talentuen parabola! Mundu honetan, nork bere talentuekin zer egin duen aztertu behar du”.

ezkonduta bizi ziren, banketxeek bulegoak zabaltu zituzten hemen eta bertan ari ginen lanean... Jende asko. Gero, ETA etorri zenean hoztu egin zen pixka bat giro hori. Gu ez gara politikan sartzen, baina euskaldunak gara Madrilen...

Madrilen bihotz-bihotzean da euskal etxea. Aurrez aurre, Zarzuela antzokia duzue. Harrikada bide, Espainiako

Gorteak: diputatuen kongresua. Pauso bat egin eta Puerta del Sol...

Etxe hau erosi genuenean ez geneukan dirurik eta aurrezki kuxara joan ginen. Hogeita bost milioi pezeta pagatu genituen, besterik ez. Kutzakoei esaten genien: “Begira, ez dugu espekulazio asmorik, baina etxea erosi, bertan bizitzen jarri eta negozioa egingo genuen!” Garbi ikusten genuen. Aukera aparta izan zen. Ordutik hona asko aldatu da egoera, jendeak ez luke sinetsiko. Gero, obra batzuk egin genituen, baina etxea ukitu gabe dago.

Zer giro dago zuen artean?

Nik uste gauza okerrean ahaztu direla. Tentsio gogorrak izan ziren garai batean.

Zergatik?

ETAkoak zirela eta ez zirela. Edo, ETAkoak ez baziren, orroka ibiltzen zirenengatik: “Gora Euskadi Askatuta!” eta horrelakoak oihuka hemen. Guk euskaldunontzako etxea nahi genuen, denontzat, euskaraz eta euskaldunen aldekoa. Gero, nork bere pentsatzeko modua izango du, baina hori beste gauza bat da, aparte. Bandera espainolak erretzen zituztenean eta, hura denontzat zen kaltegarria. Aitzakia eman ez, behintzat! Azken finean, Madrilen bizi behar genuen!

Euskal etxe askotan ez dakit, baina batean baino gehiagotan izan da tentsio hori. AEBetako batzuk ezagutu ditut, eta Mexiko Hirikoa ere bai...

Nik Espainia aldeko euskal etxeak ezagutzen ditut. Uste dut gehienetan jendea konturatzen zela tanto gutxi geneuzkala eskuetan, eta sen onez jokatu behar genuela. Gure kasuan, gainera, Madrilen geundela eta gutxi ginela ere hartu behar zen kontuan.

Tentsioak baretu al dira?

Trankilago bizi gara alde horretatik, baina beti dago arriskua... Nik esango nuke, guk, eus-

Madril II

“Askok hazi da. Bizpahiru urte barru sei milioi izango omen gara Madrilen! Hemen garen euskaldunak ondo bizi gara, ez genuen behe-behetik hasi behar izan. Banketxera etorri ginen lanera, Pradoko Museora... Udaletxean ere hainbat euskaldunek lan egin zuten. Hemen geratu ziren eta zer egin behar zuten, atzera Beizamara joan, baserrira? Garbitzaile sartu, besterik ez bazen ere, eta gero, poliki-poliki, lana eta bizimodua hobetu. Horixe egin du argia izan denak”.



kaldunok, goxo-goxo saiatu behar dugula, ez ostikoka.

Horrela jardun al duzue zuek, “goxo-goxo”? Ahalegina egin dugu. Euskal meza euskal meza zen, euskaraz. Ikasleekin biltzen ginenean, beste lekuetako estudianteei –asturiarrei eta–, ez zitzaien gustatzen gure bildu nahi hura. “*Éstos no quieren ser de los nuestros, no quieren ser como nosotros*”, (hauek ez dute gutarrak izan nahi, ez dute gu bezalakoak izan nahi) esaten zuten, kalean euskaraz kantatzen abiatzen ginenean eta.

Santa eskean ere irten ohi duzue euskal etxe-koak. Harrigarria izango zen Madrilen...

Ez pentsa! Gaztelako kulturean ere badago ohitura hori, kalerik kale kantatzekoa alegia, eta hortaz, jendeak ikusten gintuenean ez zuen erabat gauza ezezaguna. Bestalde, orritxo bat ere banatzen genuen, Santa Ageda egunaren berri emanez, Euskal Herriko ohitura zela azalduz eta denei eguna zoriontzen geniela esanez. Horrelako gauza txiki baina, aldi berean, dotorea. Jendeak orritxo irakurri eta “hauxe jende ondo hezia!” pentsatuko zuen. Guri ere komeni zitzaigun.

Zeuen buruak saltzea, irudia, alegia.

Beharko, beharko! Zeure burua ondo saldu ezik, akabo! Hori egiten ez baduzu galduta zaude! Saldu egin behar dugu euskaldunon izen ona! Gainera, gure kasuan, saltzekorik edukiko ez bagenu... Denak okerrak bagina... Hara, gure gainean esan diren gauza guztiak eta, gertatu direnak gertatu eta...

Atentatuez ari zara...

Bai, atentatuak eta, hildakoak eta... Bada, hala ere, ba al dakizu zer esaten diguten? “Euskaldunak zoragarriak zarete!”. Hala ere! Egia da atentaturen bat gertatu eta egoera ez dela erraza iza-

Madril III

“Lapurreta kontua okerrera ari da Madrilen. Francoren denboran makila zegoen, eta lapurrak beldurra zion horri. Franco ez dut begien bistan ikusi nahi, kartzelan ere eduki ninduten eta. Baina oraingo egoera ere! Oraindik orain, bi egunean lapurreta bana ikustea gertatu zitzaidan. Batean, emakume bat orroka, ‘lapurra, lapurra!’. Segituan, gizon bat lapurraren atzetik, korrika. Lasterkan zihoala, lapurra erori egin zen eta andrea-ren poltsa kendu zion gizonak. Lapurrak hanka egin zuen. Biharamunean, ijito itxurako emakume bat eskuan zeuzkanak kentzen hasi zitzaion beste andre bati. Europa Ekialdetik edo ez dakit nondik datorren jende hori. Kontua da bizitza kalitatea galtzen ari garela Madrilen. Lasaitasuna galtzen. Taxia hartzeko ezker-eskuin begiratu behar duzu”.

ten. Hori gertatzen zenean, euskal etxetik irten poliki-poliki eta etxera. Bidean baten batekin geratu, zer edo zer hartu igual, baina besterik ez.

Madrilen Martxoaren 11ko atentatuen ondoren, inor ez omen zen euskal etxean. Beste asko bezala, zuek ere ETA ez izatea nahi zenuen, zeruari horixe eskatzen, errezatzen ari omen zinetela idatzi zuen egunkari jakin batek. Errezatzen... Hori baten-baten esana da, bat-batekoa, ez besterik. Ni ez nago bonba eta horrelakoekin conforme, hortik ez goaz eta inora. Pausoak eman behar dira, eskubideak aldarrikatu, bakoitzak bereari eutsi eta bata bestearekin ondo konpondu. Horrela izan dadin ahalegina egin behintzat.

Zeuen buruak saltzeko ez duzue martingala makala asmatu: ohorezko bazkideak izendatzea, alajaina. Pablo Sorozabal, Barandiaran, Sukia kardinala, Caro Baroja, Jose Luis Pinillos, Haritschelar...

Bai. Euskal Herrian zera esaten da: “Sagardorik onena, gurea”. Eman dezagun, Astigarragakoa. Baina gu ez gara beti sagardoa edaten ari, baditugu bestelako gauza batzuk ere! Horregatik ohorezko bazkide horiek. Gogoratzten naiz Julio Caro Baroja, kopetilun etorri igual, eta esaten nion: “Don Julio, umore txar itxura duzu gaur!”. Eta berak ezer esan baino lehen, nik: “Jakina, oraintxe Beran egongo bazina...”. Eta irribarre egiten zuen.

Bizpahiru aldiz hots egin dut euskal etxe honetara zure galdera eginez eta hemen baino gehiago San Inazio elizan, euskaldunen elizan egoten zarela esan izan didate...

Jakina, bada! Ni ez naiz izan behar Franco bezala! Euskal etxeko presidente izan nintzela eta bertan betiko? Ez, ez, hori ez! Bidea utzi behar zaie atzetik datozeniei. n